


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHU<sub>n</sub> MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ETA  
IKERKETAREN EMAITZAK DIBULGATZEKO  
LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2021)**



## **ATARIKOA**

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat. Era berean, ikertzaileen mugikortasuna eta ikerketako emaitzen dibulgazioa ere jarduera garrantzitsuak dira ikerketa lanean. Gauzak horrela, baliabideak eman behar dira ikerketa jarduerak burutzeko. Ikertaldeetan eta lan arloetan hainbat egoera eman daitezkeela kontuan hartuta, komeni da ikertzaileen komunitateari ematen zaizkion baliabideak ere zabalak izatea.

Deialdi honen bidez, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasuna eta UPV/EHU<sup>n</sup> egindako ikerketen emaitzen komunikazio zientifikoa finantzatu nahi dira, besteak beste.

Helburu honetarako 400.000 € bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerketako Kontratu Programaren barruan, "UPV/EHUren lidergoa eta parte hartzea sustatzea", Europar Batasunaren Ikerkuntza programa markoaren barruko ikerketa proiektuetan, "ikerketarako mugikortasun eta egonaldi programak sustatzea", "nazioarteko doktorego tesien egitea bultzatzea" izeneko ekintzetan esleitutako finantzaketari eta Ikerketaren arloko errektoreordetzaren aurrekontu kredituari lotutako aurrekontu kredituari dagozkionak. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) bere oniritzia eman, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren diru laguntzak emateko deialdia argitaratzea erabaki du. Modalitate hauek daude:

- I. modalitatea: ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egun bitarteko egonaldietan.**
- II. modalitatea: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoetan parte hartu.**
- III. modalitatea: Nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea bultzatzea.**
- IV. modalitatea: kongresu zientifikoak antolatzea.**
- V. modalitatea: ekintza bereziak.**
- IV. modalitatea: Ikertzaileen mugikortasuna, zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko eragileetan (ZTBES) 15-90 egun bitarteko egonaldiak egiteko.**

### **1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honen bidez, batetik, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasunerako jarduerak erraztu eta indartu nahi dira, eta, bestetik, ikerketako emaitzen difusioa bultzatu nahi da, UPV/EHU<sup>n</sup> estatu eta nazioarteko mailako biltzarrak antolatuz.

### **2. oinarria. DEIALDI HONETAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO EZINTASUNAK**

Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmoz kondenatuta daudenak diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenak.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

Deialdi honetako IV. eta V. modalitateetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egin nahiko dituzten ikertaldeak ezin izango dira onuradun izan, baldin eta taldeko kideren bat aipaturiko egoeraren batean badago.

## **I. MODALITATEA: ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egun bitarteko egonaldietan.**

### **3. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez, ikertzaileei egonaldiak egiteko beste ikerketa zentro batzuetara joateko bidea erraztu nahi zaie. Egondiek gutxienez 30 eta gehienez 150 egun naturaleko iraupena izango dute, eta helburu bakar bat: ikerketa jarduerak burutzeko, bereziki nazioarteko doktorego tesiak.

### **4. oinarria. ESKATZAILEEN ETA MUGIKORTASUNERAKO HARRERA GUNEAREN EZAUGARRIAK ETA EGONALDIAREN BALDINTZAK**

Ikertzaileek laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta UPV/EHUrekiko enplegu loturaren motaren baldintzak eta 4.1 eta 4.2 ataletan jasotako baldintza partikularrak betetzen badituzte.

#### **4.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:**

- a. UPV/EHUrekin lotutako lan kontratudunak edo funtzionarioak, UPV/EHU<sup>n</sup> kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHU<sup>n</sup> atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak. Lanaldi osora egongo dira guztiak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) eta 23. artikuluan (itzal handiko ikertzaileak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langile ez iraunkorrak, UPV/EHU<sup>n</sup> gutxienez urtebeteko antzinasuna dutenak, baldin eta haien kontratua edo UPV/EHUrekin duten lotura mugikortasuna amaitu arte gutxienez aurreikusten bada.
- c. Honako hauek ezin izango dira deialdi honetan sartu:
  - i. 14/2011 Legearen 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoaren arabera lotura duten eta UPV/EHUkoak ez diren (Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren...) deialdietako langileak, non eta doktore aurreko edo doktore ondoko kontratua eman zien erakunde horretan mugikortasunetarako hornidura espezifikorik ez duten deialdietatik etorritako pertsonala den.
  - ii. Lanaldi partzialeko kontratua duten irakasleak edo obra edo zerbitzu baterako kontratatutako ikertzaileak (PIC).
  - iii. Langile ez iraunkorrak, baldin eta horien kolektiboa ez badago sartuta oinarri honetako a eta b letretan.

#### **4.2. Eskatzaileen baldintza partikularrak:**

- a. Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHU<sup>n</sup> gauzatzen den ikerketa proiektuen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.

Salbuetsita egongo dira Eusko Jaurlaritzaren mugikortasun laguntza eska dezaketanak, salbu eta, eskaria eginda, finantzaketarik lortu ez badu.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva ("Inkorporazio" modalitatea) programaren deialdietako laguntzak izango dira, proiektu jakin bat garatzeko finantzaketa barne hartzen baitute, kontratuaren beraren finantzaketaz gain.

- b. Laguntzarik ez jaso izana, ez deialdi honetan, ez antzeko besteren batean, bost hilabetez baino gehiagoz, 2020ko urtarriletik 2021eko abendura arte.

Egindako egonaldien aldi metatua bost hilabete baino gutxiagokoa bada, 150 egunetara heltzeko geratzen diren egunetarako eskatu ahal izango da laguntza.

#### **4.3. Harrera zentroaren eta UPV/EHUko ikertzailea hartuko duen pertsonaren ezaugarriak.**

- a. Harrera guneak dira laguntzen onuradunak mugikortasun egonaldian zehar hartuko dutenak eta proiektua bertan egingo dute. Harrera zentroak izan daitezke bai unibertsitateak bai bestelako zentroak, baldin eta ikerketa jarduerak egiten badituzte eta diru laguntzaren eskaeran

adierazitako proiektuaren arlo zientifikoan prestigio akademikoa eta ikerketakoa badute; hartara, proiektuaren helburu zientifikoak eta hobekuntza profesionala lortzeko bermeak eskainiko dira.

- b. Harrera zentroek, edonola ere, bizilekuz aldatzea eskatuko diote hautagaiari mugikortasunak iraun bitartean.
- c. Helburuko gunean ikertzaileari harrera eginen dion pertsonak ikerketa esperientzia handia izango du, ikerketa arlo jakin horretan.

#### 4.4. Egonaldiaren baldintzak

- a. Zentro hartzaileko egonaldiak modu etengabea egin beharko dira. Proiektuaren ondoriozko arazoiek eragindako absentzia orok zentro hartzailearen arduradunaren adostasuna izan beharko du, eta onuradunak Ikerketako Zuzendaritza Nagusiari (aurrerantzean, IZN) jakinarazi beharko dio, absentziaren arrazoia eta datak zehaztuz, eta mezu elektronikoko bat bidaliz helbide honetara: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus).
- b. Justifikatutako arazoengatik, aldi baterako etenaldia baimendu ahal izango da, gehienez ere bi hilabetez, baldin eta egonaldi osoaren iraupena ezarritako gutxienezkoa baino txikiagoa ez bada. Etendako aldia berreskurazina izango da, edozein kasutan oro.
- c. Diru laguntzak emateko hasierako baldintzetan eta egonaldiez gozatzeko epeetan edozein aldaketa egiteko, IGZ-ek baimena eman beharko du.
- d. Pertsona onuradunak aurkeztuko du aldaketa eskaera, eta zentro hartzailearen adostasuna izan beharko du. Behar bezala arazoitako eskaerak izan beharko dute beti, eta, hala badagokio, dokumentatuak. IGZ-k egoki irizitako txostenak eskatu ahal izango ditu proposamena egiteko. Aldaketek ezingo dituzte aldatu emakida baldintzak, ez lanean hasteko epeetan, ez egonaldian, ez proiektuan, ez ikertzailearen epean, ez zentro hartzailean, behar bezala egiaztatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

#### 5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Ostatu eta mantenu gastuak ordaintzeko laguntzen zenbatekoa egonaldia zein herritan egingo den eta zenbat egun naturalekoa izango den kontuan hartuz zehaztuko da. 30 euro ordainduko dira egonaldiko egun ziurtatu bakoitzeko, hasieran baimendutako aldia kontuan hartuta.

Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaia bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Gehieneko kopurua
1.000 km arte	300 euro
1.000 eta 2.500 km bitartean	600 euro
2.501 eta 11.000 km bitartean	1.000 euro
11.000 km baino gehiago	1.200 euro

200 euroko gehigarri bat emango da, bisatu bat izapidetzea beharrezkoa den joan-etorrietarako. Halaber, Covid-19a antzemateko PCR testaren kostua ere ordainduko da, beti ere, testa egin beharra eta egindako gastua behar bezala justifikatu ostean.

Bidaia laguntzak ez du barne hartuko tokiko garraioa.

Ez da finantzaketa gehigarririk emango mediku aseguruaren kontrataziorako, ikertzaileak mota honetako aseguruak eskatzen dituzten herrialdeetara bidaiatzen badu.

14/2011 legeren 21. artikulua bidez kontratatutako ikertzaileen kasuan, egonaldien gehieneko iraupena, otorduatarako laguntzen gehieneko zenbatekoa eta joan-etorrietarako laguntza Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programaren barruan egonaldietarako urtero egiten duen deialdian zehaztutakoa izango da.

<https://www.euskadi.eus/informacion/ayudas-al-personal-investigador-estancias-predoctorales-egonlabur/web01-a3predoc/es/>

5.2. Aurreko ataletan joan-etorri, lojamendu eta mantenura bideratu eta adierazitako gehieneko zenbatekoak gorabehera, laguntzen zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira **joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arategiak zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruz dioenarekin.**

5.3. Laguntza hauek bateragarriak dira egonaldietako gasturik onartzen duten deialdietatik etorritako beste batzuekin, beti ere, ez badira administrazio publikoek egonaldiak espezifikoki finantzatzeko helburuaz deitutako deialdiak. Nolanahi ere, gastuak justifikatu beharko dira beti jatorrizko fakturekin.

## **6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

6.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bere izenean, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onspena izan beharko du.

6.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a) Eskaera, inprimaki normalizatuan, harrera gunera joateko bidaia egin baino 30 egun lehenago aurkeztu beharko dena, gutxienez. Horren ondoren aurkeztuz gero, % 75eko aurrerakina jasotzeko eskubidea gal daiteke, horren likidazioa zuzenean eginda egonaldia amaieran eta egindako gastuak justifikatuz. Ezin izango da, inola ere, laguntzarik eskatu, behin egonaldia hasia bada.
- b) Harrerako ikerketa zentroko arduradunaren onarpen gutuna. Gutun hori eskuz sinatuta egongo da, edo baimendutako sinadura digitala izango du. Ez dira onartuko, inola ere, eskaneatutako gutunak.
- c) Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculuma. Soilik modu telematikoan aurkeztuko da.
- d) Bisatua behar den kasuetan, hura eskatu izanaren ziurtagiria. Edonola ere, bisatua eduki beharko da, deialdi honetako 39.1 oinarrian ezarritako laguntzaren aurrerakina jasotzeko.
- e) Horrez gain, prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena aurkeztu beharko dute.
- f) Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g) Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

6.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.

6.4. Eskariak UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Rudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Mugikortasuna 2021".

## **7. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipendunak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculuma (35 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, zeina kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera balioetsiko baita (35 puntu).
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balioespena (30 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

## **II. MODALITATEA: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza organoetan parte hartu.**

### **8. oinarria. LAGUNTZAREN HELBURUA**

Modalitate honen helburua UPV/EHUko ikertzaileek nazioarteko elkarte zientifikoaren zuzendaritza organoetan parte har dezatela sustatzea da.

### **9. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

UPV/EHUko ikertzaileek eska ditzakete laguntza hauek, betiere, lotura motaren baldintza hau betetzen badute:

#### **UPV/EHUrekiko lotura motak:**

UPV/EHUekin lotutako lan kontratadun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHU<sup>n</sup> Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea, irakasle atxikiak edo lehenago izandako bitarteko lan kontratadunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero, hauek guztiauek arduraldi osokoak izanik.

### **10. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

10.1. Honako gastu hauek sartuko dira: nazioarteko elkarte zientifikoaren zuzendaritza organoen biltzarretara joateari eta horietan parte hartzeari loturiko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Gastu horiek eskatzailearen izen-deituraz eta NAN zenbakiaz agertuko dira. Ez da UPV/EHUren izenean jarritako gasturik. Diru laguntzaren zenbatekoa bilera egingo deneko herriaren arabera zehaztuko da.

10.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Espainiako Estatuko herriak: 800 € eskaera bakoitzeko.
- Europako herriak: 1.300 € eskaera bakoitzeko.
- Europatik kanpoko herriak: 1.900 € eskaera bakoitzeko.

10.3. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-tara arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 10.5. atalean adierazitakoaren arabera.

10.4. Laguntzaren esleipena eta ordainketa finkatutako prozeduraren arabera egingo dira, eta interesdunek, egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriarekin batera, biltzarrean parte hartu izanaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, biltzarra deitu duen erakundeak igorria.

10.5. Aurreko ataletan adierazitako gehieneko zenbatekoak gorabehera, laguntzen zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne arautegiak zerbitzuengatik kalte-ordainei buruz dioenarekin.

10.6. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, baldin eta helburu bera badute.

### **11. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

11.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bere izenean eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onspena izan beharko du.

11.2. Eskarrietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Elkarte zientifikoak antolatutako biltzarra hasi baino gutxienez 30 egun lehenago aurkeztu beharko da inprimakia.
- b. Bileraren deialdi ofizialaren kopia eta dagozkion zuzendaritza organoetako kide izatearen egiaztagiriaren kopia.
- c. Ikertzaile eskatzailearen curriculum.

11.3. Deialdi honetako modalitate hau era deszentralizatuan gauzatzen da; hortaz, eskaerak dagozkion campusetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- **Arabako campusa:** eskariak UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean "Arabako Campuseko Errektoreordetza (U02000008)" adierazi beharko da eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartu".
- **Bizkaiko Campusa:** eskariak aurkeztu ahal izango dira:
  - Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean "Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza (U02000009)" adierazi beharko da eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartu".
  - Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen aplikazio informatikoa erabiliz: <http://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/bidai-poltsak>
- **Gipuzkoako Campusa:** eskariak aurkeztu ahal izango dira:
  - Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean "Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza (U020000010)" adierazi beharko da eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Nazioarteko elkarte zientifikoetan parte hartu".
  - Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen aplikazio informatikoa erabiliz: <http://www.ehu.eus/eu/group/gipuzkoa/deialdiak/>.

11.4. Eskariak aurkezteko epea: Ikus 35.1. oinarrian ezarritakoa.

## 12. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campuseko errektoreordeek izendatutako batzordeek egingo dituzte.

Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Elkarte zientifikoaren garrantzia (50 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (50 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

### **III. MODALITATEA: Nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea bultzatzea.**

#### **13. oinarria. LAGUNTZEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez, nazioarteko partzuergoetan ikertzaileen partaidetza sustatu nahi da, baldin eta partzuergo horien helburua bada nazioarteko programetarako proiektuen inguruko proposamenak prestatzea eta, bereziki, Horizon Europe deialdian parte hartzea, bai eta nazioarteko plataforma, sare eta elkarteetan ere.

#### **14. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Laguntza hauek UPV/EHUko ikertzaileek eska ditzakete, betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a. UPV/EHUrekin lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHU<sup>n</sup> Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea, irakasle atxikiak eta lehenago izandako bitarteko lan kontratudunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero, hauek guztiauek arduraldi osokoak izanik.
- b. Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHU<sup>n</sup> gauzatzen den ikerketa proiekturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak izango dira proiektu jakin bat garatzeko finantzazioa barne hartzen duten Ramón y Cajal, Juan de la Cierva ("Inkorporazioa" modalitatea) eta Ikerbasque programen laguntzak.

#### **15. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

15.1. Laguntzen zenbatekoak burututako jardueraren arabera zehaztuko dira, eta 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean burututako jarduerari lotutako bidaia, ostatu eta mantenu gastuak finantzatzeko emango dira.

Burututako jardueraren arabera esleituko diren zenbatekoek gehieneko balio hauek izango dituzte:

- a. Koordinatzaile gisa proiektu proposamen bat aurkeztu izana nazioarteko programa batean; bereziki, Horizon Europe deialdian: 3.500 € gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 3.000 € gehitu ahal izango zaizkio, proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.
- b. Nazioarteko bileretan parte hartu izana, bileren helburua izan bada partzuergo bat sortzea proiektu proposamen bat aurkezteko nazioarteko programa batean; bereziki, Horizon Europe deialdian: 1.900 € gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 1.500 € gehitu ahal izango zaizkio, proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.
- c. Nazioarteko plataforma teknologikoen, sareen eta elkarten bileretan parte hartu izana, horien helburua izan bada UPV/EHU<sup>rako</sup> interesgarriak diren I+G+Bko estrategia kolektibo sektorialak sustatzea: 1.900 € gehienez, akreditatutako kide bakoitzeko.
- d. Erakunde ofizialek work programmes direlakoak eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak parte hartzaileei ulertarazten laguntzeko antolatutako topaketetan parte hartu izana. Topaketa horiek ideien eta esperientzien trukea erraztu, eta partzuergo bat osatzeko balizko kideak ezagutzeko aukera ematen dute: 1.400 € gehienez, ikertalde bakoitzeko.

15.2. Laguntza hauek bateraezinak dira administrazioak helburu berarekin eman ditzakeen beste diru laguntza batzuekin.



## **16. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

16.1. Eskaera ikertzaileak norberaren izenean bidali beharko du [proyectoseuropeos@ehu.eus](mailto:proyectoseuropeos@ehu.eus) helbide elektronikora.

16.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan.
- b. Sail edo institutuko zuzendariaren baimena.
- c. Laguntzaren xede den jardueran parte hartzeko gonbidapen gutuna.
- d. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

16.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.

## **17. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

17.1. Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Egin beharreko jardueraren garrantzia:
  - i. Nazioarteko programaren bateko deialdian elkarlaneko proiektu baterako proposamena aurkeztea koordinatzaile gisa (60 puntu).
  - ii. Nazioarteko batzarretan parte hartzea. Batzar horien xedea partzuergo bat eratzea izango da, nazioarteko programaren batean proiektu proposamen bat aurkezteari begira (40 puntu).
  - iii. Nazioarteko plataformetako bileretan parte hartzea (40 puntu).
  - iv. Erakunde ofizialek work progammes eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak ulertarazteko antolatutako topaketetan parte hartu izana (40 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (60 puntu).

17.2. Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

#### **IV. modalitatea: Kongresu zientifikoak antolatzea**

##### **18. oinarria. BILTZARRAK ANTOLATZEKO LAGUNTZEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez, biltzar zientifikoaren antolaketa bultzatu nahi da UPV/EHU<sup>n</sup>, nazioartean gure unibertsitatearen irudia eta presentzia areagotze aldera.

##### **19. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK**

Biltzar zientifikoak antolatzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Ahal dela, biltzarrak UPV/EHUren instalazioetan egin eta biltzarren antolatzaile gisa UPV/EHU agertzea. Salbuespen gisa, biltzar bat UPV/EHUtik kanpo egin ahal izango da, behar bezala justifikatuz gero.
- b. Ekitaldiek nazioarte edo nazio mailakoa izan behar dute, eta ebaluazio batzordeak baloratu beharko du garrantzi zientifikoa. Estatuko edo nazioarteko izaera deialdi honetako 23. oinarrian ezarritakoaren arabera egiten den ebaluazioan zehaztuko da.
- c. Batzorde zientifikoa edukitzea. Batzorde horrek deialdi ireki baten bidez jasotako txostenak ebaluatu eta hautatuko ditu.
- d. Kongresua txandaka estatuko edo nazioarteko beste unibertsitate zein ikerguneetan antolatu edo egingo da.
- e. Biltzarren aurrekontua inskripzio kuotekin finantzatuta egotea nahitaez. Kuoten edo babesle pribatuen bidez lortutako finantzaketa osoa biltzarreko aurrekontuaren % 50 izango da gutxienez.
- f. Kanpoko erakunde batek biltzarra diruz laguntzen badu edo inskripzio kuotak biltzen baditu UPV/EHUren bankuko kontuetan sarrerarik eragin gabe, zenbateko hori biltzarren aurrekontuan sartuko da ondorio guztietarako, UPV/EHUren kontabilitate ofizialean ez islatzeko aukera eragotzi gabe.

##### **20. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Jarduera zientifikoaren antolaketa egingo duten ikertaldeen 20.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 20.2 atalean zehazten dituen baldintzak beteko:

###### **20.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:**

- a. UPV/EHUrekin lotutako lan kontratadun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHU<sup>n</sup> Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea, irakasle atxikiak eta lehenago izandako bitarteko lan kontratadunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero, hauek guztiauek arduraldi osokoak izanik.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) eta 23. artikuluan (itzal handiko ikertzaileak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langile ez iraunkorrak, UPV/EHU<sup>n</sup> gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak, baldin eta hauen kontratuak edo UPV/EHUrekin duten loturak kongresua amaitu arte irauten badu gutxienez.
- c. Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileei dagokienez, doktorego tesiaren zuzentzaileak kongresuaren ardura daraman taldeko kide beharko du izan.
- d. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

###### **20.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Ikertalde eskatzailea 20.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktorek osatuko dute gutxienez.

- b. Hiru pertsona hauek ikertalde aktibo bateko kide izan beharko dute, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHUn gauzatzen den ikerketa proiekturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.
- c. 20.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da. Pertsona horrek koordinatzaile gisa agertu beharko du biltzarra bera finantzatzeko beste erakunde batzuetan aurkezten diren eskabide guztietan.

## **21. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

21.1. Esleituko den laguntzaren zenbatekoa jarduera burutzeko kontabilizatutako gastu osoaren % 25 izango da, gehienez. Zenbatekoa ez da inoiz izango 6.000 eurotatik gorakoa, nazioarteko biltzarren kasuan, ezta 3.000 eurotatik gorakoa ere estatuko biltzarren kasuan, eta 19.e oinarrian kuota eta babesletza pribatu kontabilizatuei buruz ezarritako % 50eko muga errespetatuko da.

Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoa kuota ordaindu duten pertsonen kopuruaren araberakoa izango da. Hortaz, justifikazioa egiterakoan, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, kongresura joandakoen eta ordaindutako kuoten kopuruak azalduz bai eta egindako gastu eta dirusarrerara guztiak ere, hautagarriak izan zein ez.

21.2. UPV/EHUko langileei ezin izango zaizkie ordaindu ezelako soldata osagarriak edo ordainsariak, deialdi honen laguntzak jasotzen dituzten biltzarretan parte hartzeagatik. Ezingo dira kongresuko gastu gisa jo hizlariei egindako ordainketak.

21.3. Laguntza hauek bateraezinak dira UPV/EHUK helburu berarekin eman ditzakeen beste diru laguntza batzuekin.

Biltzarra amaitu ondoren superabita izanez gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak hartuko du.

21.4. Kongresu bati esleitutako laguntzaren erabilerak honako muga hauek izango ditu:

- a. Esleitutako laguntza biltzarrerako erabiliko da, inskripzio kuotak kobratzen diren eta benetan jasotako babesletza pribatuen proportzio berean.
- b. Eskaeran aurreikusitakoaren aurka, kuotak kobratuko ez balira, Errektoreordetzak laguntzaren zati bat kendu ahal izango du, kobratutako kuoten benetako ehunekora egokituta.
- c. Diru laguntza ez da erabiliko otorduak, ekintza ludikoak, protokolo gastuak edo partaideentzako opariak ordaintzeko, ez baitira gastu hautagarritzat joko. Dena den, bai hartuko da gastutzat "coffee break" izenekoa.
- d. Halako gasturik egonez gero, UPV/EHUK ordaindutakoaz gaindiko finantzaketarekin eta halako gastuak berariaz kanpo uzten ez dituzten beste laguntza batzuekin bakarrik ordaindu ahal izango dira. Hautagarriak ez direnez, gastu horiek ez dira aintzat hartuko inskripzio kuoten eta babesletza pribatuen % 50 kalkulatzeko.
- e. Gastuen artean ikasleei laguntzak ematea aurreikusten bada, gastu hori hautagarritzat hartzeko ezinbestekoa izango da diru kopuruak eta horiek emateko irizpideak aipatzea eskaeran eta biltzarraren dokumentazioan.

## **22. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

22.1. Eskaera jarduera koordinatzen duen ikertzaileak aurkeztu beharko du.

22.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Biltzarra hasi baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da inprimakia.
- b. Biltzarraren aurreko egitaraua, batzorde zientifikoaren eta batzorde antolatzailearen zerrenda, eta txostenen deialdia (call for papers).
- c. Ikertaldeak dituen baterako finantzaketari buruzko dokumentuak (emanak edo eskatuak).

- d. Biltzarraren aurrekontu osoa justifikatzen duen dokumentazioa.
- e. Ikertalde eskatzaileko hiru kideren curriculum osoa (gutxieneko ikertaldea).
- f. Biltzarra UPV/EHUren aretoetan egiten ez bada, horren justifikazioa.
- g. Taldeko kide guztiek sinatutako zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

22.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.

22.4. Eskariak UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Kongresuen antolaketa 2021".

### **23. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipendunak hautatzeko, kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- a. Biltzarraren kalitatea eta aintzatespena nazioartean (35 puntu).
- b. Jarduerak batera finantzatzeko funtsak izatea (30 puntu).
- c. Talde eskatzailearen ekoizpen zientifikoa (35 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

## **V. MODALITATEA: Ekintza bereziak**

### **24. oinarria. XEDEA**

Modalitate honen bidez, ikerketa jarduerari loturiko esku hartze berezi eta puntualen bat eskatzen duten helburu zientifikoak ordaindu nahi dira.

24.1. Ez dira "ekintza berezizat" hartuko honako hauek:

- a) Kanpoko elkarte edo erakunde baten finantzaketa, aurretik den proiektu batekin zuzeneko lotura izan arren.
- b) Azpiegiturak eskuratzea, aldatzea edo handitzea.
- c) Ikerketa proiektu berriztat edo abian den proiektu baten osagarritzat har daitekeen ikerketa jarduera.
- d) Ikastaroak antolatzea eta haietara joatea.
- e) Workshopak antolatzea.
- f) Ikerketa zentroetan egonaldiak egitea.
- g) Kanpoko zerbitzuak kontratatzea.

24.2. Ekintza berezizat hartuko da ikerketa jardueran sortutako ikerketa emaitzak argitaratzea, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Argitaratu den aldizkariak JCR, Scopus edo baliokidearen eragin handia duenean.
- b) Artikulua sinatu duten pertsonetatik inork ez duenean ikerketa jarduera edo ikertalde batean parte hartzen, artikulua gastu hautagarri gisa argitaratzea aurreikusten duen finantzaketarekin.
- c) Bibliotekak argialetxeekin sinatutako akordioetan argitalpena ez sartzea.

24.3. 24.1 atalean ezarritako hori alde batera utzi gabe, IGBBk proposatutako ekintza bereziak apartekoak edo salbuespenekoak diren aztertuko du oso kasu zehatzetan.

### **25. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Ikertaldeek 25.1 atalean jasotzen diren UPV/EHUrekiko lotura motari dagozkion baldintzetako bat betetzen duten osakideak izango dituzte eta, ikertaldeak osatzeko 25.2 atalean zehazten dituen baldintzak beteko:

#### **25.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:**

- a. UPV/EHUekin lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua arabera kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHU<sup>n</sup> Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea eta irakasle atxikiak edo lehenago izandakoak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero, hauek guztiauek arduraldi osokoak izanik.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) eta 23. artikuluan (itzal handiko ikertzaileak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten langile ez iraunkorrak, UPV/EHU<sup>n</sup> gutxienez urtebeteko antzinasuna dutenak, baldin eta hauen kontratuak edo UPV/EHUekin duten loturak ekintza berezia amaitu arte irauten badu gutxienez.

Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktorego tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du.

- c. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

## 25.2. **Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Ikertalde eskatzailea deialdi honen 25.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktorek osatuko dute, gutxienez.
- b. Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHU<sup>n</sup> gauzatzen den ikerketa proiekturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.
- c. 25.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren ikertzaile nagusia (IN) izango da.

## 26. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

26.1. Gehienez 3.000 eurotako laguntzak emango dira.

26.2. Mugikortasun deialdi honen onura jasotzen duten ekintza berezietan parte hartzen duten UPV/EHUko langileei ez zaizkie emango ezelako soldata osagarriak edo ordainsariak.

26.3. Modalitate honetako laguntzak bateragarriak dira beste entitate finantzatzaile batzuek emandakoekin, baldin eta jarduera burutzeko finkatutako aurrekontu osoa gainditzen ez bada, deialdi honen helburuak eta xedeak eta kontrakoa esan dezaketen gainerako deialdien xedapenak eragotzi gabe.

## 27. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK

27.1. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan.
- b. Ikertalde eskatzaileko hiru kideren curriculum osoa (gutxienezko ikertaldea).
- c. Taldeko kide guztiek sinatutako zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

27.2. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.

27.3. Eskariak UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Ekintza bereziak 2021".

## 28. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

28.1. Eskatutako ekintzak ondo justifikatu behar du zergatik ezin den beste deialdi publiko batzuen bidez finantzatu. Irizpide hori bete egin behar da, finantzaketa lortu nahi bada.

28.2. Irizpide hauen arabera egingo da balorazioa:

- a. Proposamenaren kalitate zientifikoa eta teknikoa (helburuak, eduki berritzailea, metodologia, lan plana...), eta haren bideragarritasuna, talde eskatzailearen ikerketarako ahalaren arabera (40 puntu).
- b. Eskaeraren ikertzaile nagusiak eta gainerako ikertalde kideek aurrez eginiko ikerketa jarduera eta jarduera horren kalitatea. Talde eskatzailearen kalitatea, tamaina, osaera eta dedikazioa balioetsiko dira (30 puntu).
- c. Eskatutako baliabideak proposatutako helburuetara egokitzea (30 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

#### **IV. MODALITATEA. Ikertzaileen mugikortasuna, zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko eragileetan (ZTBES) 15-90 egun bitarteko egonaldiak egiteko.**

##### **29. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA**

Honako modalitate honen bidez, erraztu nahi da UPV/EHUko ikertzaileek egonaldiak egin ditzatela zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko eragileetan, unibertsitatearen eta enpresa edo bestelako eragileen arteko jakintza eta esperientzien elkartrukeari bide emanez.

##### **30. oinarria. EGONALDIEN EZAUGARRIAK**

30.1. Egonaldiak 15 eta 90 egunen arteko iraupena izango du eta helburu argi bat planteatuko da, non unibertsitate lankidetzak beharrezko izango baita, elkarren intereseko prozedurak berri edo problemak ebazteko.

30.2. Ikertzaileek bakoitzak deialdi honetako laguntza eskari bakarra aurkeztu ahal izango du, indarrean dirauen bitartean.

##### **31. oinarria. ESKATZAILEEN ETA MUGIKORTASUNERAKO HARRERA GUNEAREN EZAUGARRIAK**

Ikertzaileek laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta UPV/EHUrekiko enplegu loturaren motaren baldintzak eta 31.1 eta 4.2 ataletan jasotako baldintza partikularrak betetzen badituzte.

###### **31.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:**

- a. UPV/EHUekin lotutako lan kontratudunak edo funtzionarioak, UPV/EHU<sup>n</sup> kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUrak atxikita dauden Marie Curie programako, Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC gune mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak. Lanaldi osora egongo dira guztiak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluan (doktorego aurreko kontratuak), 22. artikuluan (doktorego ondoko kontratuak) eta 23. artikuluan (itzal handiko ikertzaileak) jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten langile ez iraunkorrak, UPV/EHU<sup>n</sup> gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak, baldin eta haien kontratua edo UPV/EHUekin duten lotura mugikortasuna amaitu arte gutxienez aurreikusten bada.

Ezin izango dira deialdi honetan lehiatu lanaldi partzialeko kontratua duten irakasleak edo obra edo zerbitzu baterako kontratatutako ikertzaileak (PIC).

###### **31.2. Eskatzaileen baldintza partikularrak:**

- a) Ikerketa talde aktibo bateko kide izatea, finantzaketarekin edo finantzaketarik gabe, edo UPV/EHU<sup>n</sup> gauzatzen den ikerketa proiekturen batean parte hartzea, baldin eta unibertsitatea finantzaketaren onuradun bada, finantzaketaren jatorria edozein izanda ere.

Doktore aurreko eta ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko baldintza hori betetzeari begira. Salbuespen bakarrak Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva ("Inkorporazio" modalitatea) programaren deialdietako laguntzak izango dira, proiektu jakin bat garatzeko finantzaketa barne hartzen baitute, kontratuaren beraren finantzaketaz gain.

- b) Mugikortasunak, gutxienez, udalerritik aldatzea ekarri behar du, hortaz, ez da finantzatuko eskatzailearen langunea daukan udalerririk berean kokatutako guneetan egindako egonaldirik.
- c) Programa honetako laguntzarik ez izatea, ez eta ezaugarri bertsuko beste batekorik ere.

###### **31.3. Harrera erakundearen eta UPV/EHUko ikertzailea hartuko duen pertsonaren ezaugarriak.**

- a) Harrera erakunde izango dira laguntzen onuradunek proiektua egonaldian zehar lantzeko darabiltzaten guneak, diru laguntzarako eskarian aurkeztutako proiektuaren eremu zientifikoan jarduerarik egiten duen ZTBESeko edozein eragile, beti ere proiektuaren zientzia helburuak eta hobetze profesionalak lortu ahal izateko berme eta bitarte bada, Eragile dira honako hauek:

- a. Eragile bakanak.

- b. Unibertsitateetako ikerkuntza egiturak.
- c. Oinarrizko eta bikaintasunezko ikerguneak.
- d. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zabaltzeko eragileak.
- e. Osasun ikerkuntzarako institutuak (OII).
- f. Osasungintzaren I+G antolakuntza.
- g. Teknologia gune foku aniztunak
- h. Teknologia gune sektorialak
- i. Ikerketa kooperatiboko guneak (IKG)
- j. Enpresarako I+G unitateak.
- k. Eskaria/eskaintza bitartekaritza eragileak.

b) Harrera erakundeak inskribaturik beharko du egon, eskaria aurkezten denean, ZTBESren erregistroan: <https://www.innobasque.eus/microsite/innovacion-en-euskadi/red-vasca-cti/red-vasca-de-ciencia-tecnologia-e-innovacion/>

c) Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingen dion pertsonak ikerketa esperientzia handia izango du, ikerketa arlo jakin horretan.

### **32. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

32.1. Laguntzak bi kontzeptu ditu:

- a. Mantenu kostuak: Gehienez, 21 euro ordainduko dira egonaldiko lanegun ziurtatu bakoitzeko, hasieran baimendutako aldia kontuan hartuta.
- b. Joan-etortzeko kostuak: UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eta gerenteak UPV/EHUko zerbitzu ordainei eta ordezkariak gastuei buruzko zehaztapenak ezartzen dituen 2018ko otsailaren 5eko erabakiaren arabera kalkulatuko dira.

32.2. Laguntza hauek bateraezinak dira helburu bera izango duen beste edozein laguntzarekin.

### **33. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

33.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bere izenean, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onspena izan beharko du.

33.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan, gutxienez, mugikortasuna hasi baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dena.
- b. Harrera erakundearen arduradunaren onarpen gutuna. Gutun hori eskuz sinatuta egongo da, edo baimendutako sinadura digitala izango du. Ez dira onartuko, inola ere, eskaneatutako gutunak.
- c. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculuma. PDF formatuan aurkeztuko da, ez bestela.
- d. Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria.
- e. Prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena aurkeztu beharko dute.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

33.3. Eskariak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 35.1 oinarrian xedatutakoa.



33.4. Eskariak UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "ZTBES mugikortasuna 2021".

#### **34. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipendunak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a. Helburuko gunean ikertzaileari harrera egingo dion ikertzailearen curriculum (20 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, zeina kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera balioetsiko baita (40 puntu).
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balioespena (40 puntu).

Finantzaketa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

## **LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA**

### **35. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK**

35.1. Deialdi honetako modalitate ezberdinak irekita mantenduko dira hurrengo deialdia argitaratu arte, egungo deialdia baliogabetuko duena, edo erabilgarri den kreditua agortu arte, hala gertatuko balitz, argitaratu eta jakinaraziko dena, oro har, jakin dadin.

35.2. Modalitate guztietan, dagokion eskaerarekin batera, zinpeko adierazpena aurkeztuko da, 2. oinarrian ezarritako egoeraren batean ez egotearen berri emateko.

- a. I., II., III. eta VI. modalitateetan, adierazpena laguntzaren eskatzaileak sinatuta egongo da.
- b. IV. eta V. modalitateetan, adierazpena jarduera egingo duen taldeko kide guztiek sinatuta egongo da.

### **36. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOA**

Ikerketaren arloko errektoreordeak, Ikerketaren gestiorako zuzendaritzaren bidez, deialdi honetako I., IV., V. eta VI. modalitateetan aurreikusitako laguntzak kudeatuko ditu; Ikerketaren arloko errektoreordeak, Nazioarteko I+G bulegoaren bidez, III. modalitatekoak kudeatuko ditu; eta, campuseko errektoreordetzek, berriz, II. modalitateko laguntzak kudeatuko dituzte.

### **37. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

37.1. Deialdiko modalitate guztietarako eskaerak edozein unetan aurkez daitezke, deialdia indarrean dagoen bitartean.

Hala ere, laguntzak eman edo ukatuko dira, horiek onartzeko moduaren arabera:

- a. I., IV., V eta VI. modalitateetarako eskariak. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ebaluatzen ditu; hortaz, horiek berrikusi ahal izateko, batzordea noiz biltzen den hartu beharko da kontuan, Batzordearen barne arautegian ezarritakoaren arabera.
- b. II. eta III. modalitateetako eskaerak. Eskaeren inguruko erabakia campuseko errektoreordetzek eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen dute, zuzenean, eta, horrela, azkar erantzun dakieke jasotako eskaerei.

37.2. Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeke, modalitate bakoitzeko ataletan zehaztu diren irizpideak erabiliko dira. Hala behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira, jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

37.3. Ebaluazio prozesuan eskaerak ebaluatzeaz arduratzen den organoak edo, hala badagokio, kanpoko ebaluatzaileek hala proposaturik, aurkeztutako eskaeretan aldaketak egitea proposatu ahal izango die eskatzaileei, deialdi honen helburuetara hobeto egokitzeko. Ebaluazio prozesuan ikertaldeko buruari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

37.4. Ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eta proposatutako iturrietatik diru laguntza lortzea zail duten eskaerei laguntza ukatu ahal izango zaie.

37.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUren bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

### **38. oinarria. EBAZPENA**

38.1. I., IV., V. eta VI. modalitateetan parte hartuko duen UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio laguntzak esleitzeko proposamena.

38.2. II. modalitateari dagokionez, campusetako errektoreordetza bakoitzean eratutako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdi hau gehienez bi hilabeteko epean erabakiko da, eskaerak aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

38.3. III. modalitateari dagokionez, Nazioarteko I+G Bulegoak laguntzak esleitzeko proposamena bidaliko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, hamabost eguneko epean gehienez, eskaerak aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

38.4. Ikerketaren arloko errektoreordearen edo tokian tokiko campuseko errektoreordeen erabaki nominalaren bidez jakinaraziko zaio ikertzaile bakoitzari eskaera onartu zaion ala ez, eta baiezkoen kasuan, zenbateko laguntza emango zaion. Eskatzen badute, ebaluatze eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Nolanahi ere, ezespren partzial zein osorik daramaten erabakiak arrazoituak izango dira.

38.5. Adjudikazioaren gaineko erabakian, emandako laguntza bakoitzari buruz honako hauek aipatuko dira:

- Ikertzaile nagusiaren izen-deiturak.
- Ikertzaile nagusiaren saila edo institutua.
- Jardueraren izenburua.
- Jarduerak iraungo duen urte bakoitzerako esleitutako zenbatekoa, urtebetetik gorakoak badira.

38.6. Aipatutako erabakiaren kontra, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da berori hartu duen organoaren aurrean hilabeteko epean Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

### **39. oinarria. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

39.1. I. modalitatean, esleitutako zenbatekoaren % 75 ordainduko zaio eskatzaileari, emateko erabakia argitaratu ondoren. Gainerakoa jarduera egin, eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko da, egonaldia amaitu eta, gehien dela, bi hilabete iragan baino lehen.

39.2. II. modalitaterako, laguntzaren ordainketa gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da. Ikertzaileek justifikazioa aurkezteko hamabost egunen epea izango dute, bidaiak egin eta gero. Gehieneko zenbatekoa erabakian adierazitakoa izango da.

Egindako gastuak justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- i. Egindako gastuaren ziurtagiri originala.
- ii. Behar denean, nazioarteko plataformetan lortutako emaitzen txosten laburra.

39.3. IV. modalitateetan, diru jarduera kudeatzeko ORGANIKOARI esleitutako zenbatekoaren % 75eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da laguntza, erabakia argitaratu ostean. Gainerako zenbatekoa modu proportzionalan libratuko da benetan jasotako kuotei eta babesletza pribatuei buruz 19.e atalean zehaztutakoaren araberrako sarrerekiko, deialdi honetako 21.4a atalean ezarritako mugak albo batera utzi gabe.

Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena eta eginiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu ostean, sarreren eta gastuen balantzea egingo da, eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru laguntza berrietan erabiliko da.

39.4. V. modalitateetan, diru jarduera kudeatzeko ORGANIKOARI esleitutako zenbatekoaren % 100eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da laguntza, erabakia argitaratu ostean. Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena eta eginiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu ostean, sarreren eta gastuen balantzea egingo da, eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru laguntza berrietan erabiliko da.

39.5. VI. modalitaterako, laguntza, jarduera egin eta gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko zaio. Egindako gastuen justifikatzeko, aurkeztu beharreko ziurtagiriak aurkeztuta egingo da, egonaldia amaitu eta hilabetearen epea amaitu baino lehen agertuz. Gerora aurkeztuko balira, diru

laguntza gal liteke. Honez gain, harrerako ikerketa gunearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren datak adieraziko dira, eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat.

39.6. I, II, III. eta VI. modalitateetan eginiko gastuen justifikazio gisa, laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira:

- a. Bidaiak: txartelak, ontziratze txartela eta tiket originalak eskatuko dira horiek ziurtagiri gisa, eta horien faktura edo ordainketa frogagiriak.  
I modalitatean ez dira bidaiak txartelak onartuko egonaldia hasi baino 15 egun lehenagokoak edo horren aurrekoak badira, edo egonaldia amaitu eta 15 egun igaro ondorengoak badira.
- b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, hau da, joan-etorri horiek justifikatzen dituztenak.
- a. III. modalitaterako, lehen esandakoaz gainera, ostatu eta mantenu gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, norako herrialde bakoitzean baimendutako gehieneko mugak kontuan hartuta.

#### **40. oinarria. JARRAIPENA**

40.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, IGZ bitarte delarik, antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.

40.2. Amaierako txostena. Laguntzaren xede den jarduera amaitu eta hurrengo hiru hilabetetan (IV. modalitatean izan ezik, non epea 6 hilabetetakoa izango den), amaierako txosten bat egingo dute horretarako emango den inprimaki batean. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta haren sail edo institutuko zuzendariak onespena eman beharko dio. Amaierako txostenean jarduera horretan eginiko gastu guztiak eta gastu horien frogagiriak jasoko dira.

I modalitateko laguntzei dagokienez, harrerako ikerketa zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren datak adieraziko dira, eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat.

40.3. Amaierako ebaluazioa. Azken txostena entregatu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egin ahal izango da.

40.4. Aldaketak. Jarduera egin duen taldeko kideak edo helburu orokorrak aldatu badira, proposatutako aldaketentzat hitzemandako diru laguntzak aldatu edo ezeztatu behar diren ala ez erabakiko da, IGBBk dagokion txostena egin ondoren.

40.5. IV. eta V. modalitateetarako, gastua modu deszentralizatuan egingo denez, faktura originalak jarduera gauzatzeaz edo biltzarra antolatzeaz arduratuko den ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira, eta eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne auditoretzako zerbitzuak, kontrol ekonomikorako bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak informazioaren bat eskatzen dutenerako edo egiaztapenen bat egin nahi dutenerako deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

40.6. Jarduera gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak besterik ezin izango zaio egotzi proiektuari; hau da, epe horretan egiazki egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

#### **41. oinarria. EMAITZEN USTIAKETA ETA KOMUNIKAZIO ZIENTIFIKOA**

41.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko komunikazio zientifikoko ekintza guztietan ere (txostenak, hitzaldiak, biltzarrak eta ekitaldi zientifikoak), ikertzaileek UPV/EHUrekin duten lotura adieraziko dute eta erakundearen irudi korporatiboa agertuko da, Unibertsitateak ezarri moduan.

41.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda.

41.3. Ikerketa jarduerak aurrera eraman ahal, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal

espezializatuak honela iritziko balio. Erregistroa eginez gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektuala daukaten gainerako objektuen titularrak, eta asmakuntzan parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoak negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

#### **42. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

42.1. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengo azar daitezke:

- a. Modalitate guztietako laguntzetan, jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. I, II, III. eta VI. modalitateetan, eskatzaileak jasotako laguntza guztia edo zati bat itzultzea.

42.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. oinarriari jarraiki. Erabakia jarduera gauzatzen duen ikertaldeko ikertzaile nagusiarik jakinaraziko zaio, IV. eta V. modalitateen kasuan, eta laguntzaren titularrari, berriz, I., II., III. eta VI. modalitateen kasuan.

42.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntza eman zen mugikortasunari uko egiten zaionean edo, hala behar bada, ikertzaile nagusiak jarduera egiteari uko egiten dionean, edo UPV/EHU ez den beste erakunde batera lekualdatzeak edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eramateak arriskuan jar dezakeenean ekintza bera egitea eta aurreikusitako helburuak lortzea.
- b. Ekintza berberera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldeztatik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatuzea.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori egozteak.
- a. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUk kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

#### **43. oinarria. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoak (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoak) ari direla.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honen aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegiaren aurrean, hura argitaratu eta hila beteko epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2021eko ekainaren 14an.

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación